

2021. Ordenantza fiskalak. Behin betiko onarpena 2020ko irailaren 25ean izandako Bermeoko Udaleko Osoko Bilkuran BAO 2020/10/06. 192. zk.

ORDENANTZA FISKALA, HERRI ERABILERAKO LURRAK MERKANTZIA, ERAIKUNTZAKO MATERIAL, OBRA HONDAKIN, HESI, ESKORA, ALDAMINO ETA ANTZEKO INSTALAZINOAKAZ OKUPATZEAGAITIK ORDAINDU BEHARREKO TASA ARAUTZEN DUENA

1. artikulua: KONTZEPTUA.

Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 legearen 106. artikulua emondako ahalmenak erabilteko eta Tokiko Ogasunen 9/2005 Foru-Arauaren 21. eta hurrengo artikuluetan ezarritakoa kontutan izanda, herri jabariaren erabilera pribatiboaren edo aprobetxamendu bereziaren tasa ezarri da, herri erabilerako lurra merkantziakaz, eraikuntzako materialaz, hesiakaz, eskorakaz, aldaminokaz eta antzeko instalazinoakaz hartzeak dakarrena hain zuzen be. Tasa hori ordenantza fiskal honek arautuko du, eta haren arauak Foru Arau horren 21. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa bete beharko dute.

2. artikulua: EGITATE EZARGARRIA.

Herri jabariko erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia gauzatzea da tasaren egitate ezargarría.

3. artikulua: SUBJEKTU PASIBOA.

Subjektu pasiboak dira lizentziak edo emakidak jasoten dituen pertsonak edo erakundeak, edo aprobetxamenduaren onuradunak, baimen egokirik barik gauzatu badira.

4. artikulua: SORTZAPENA.

1.- Ordenantza honetan araututako tasa ordaindu beharra sortuko da:

- a) Bide publikoko aprobetxamendu barrien emakidak diranean, lizentzia eskatzen dan momentuan.
- b) Baimendutako eta luzatutako emakidak diranean, seihileko naturalaren lehen egunean.

5. artikulua: TASA KUOTA.

- 1. Tasa kuotea okupaturiko eremuari hurrengo ataleko tarifak aplikatzearen emoitza kopurua izango da, aprobetxamendua izan dan kalearen edo aldearen arabera.
- 2. Tasa kuotea tarifetan ezarritako eremuaren eta denborearen arabera murriztu ahal izango da.
- 3. Tarifak: tarifak m2ko edo zatika ezarri dira:

	2021(€)
-1.aldea	17,97€
-2.aldea	13,22€
-3.aldea	8,56€
-4.aldea	7,20€
-5.aldea	5,72€
-6.aldea	4,38€
-7.aldea	3,79€
-8.aldea	2,49€
-9.aldea	2,35€
-10.aldea	1,89€
-11.aldea	1,40€
-12.aldea	0,76€
-13.aldea	0,24€

6. artikulua: KUDEAKETA ARAUAK.

1. Tokiko Ogasunen 9/2005 Foru-Arauaren 25.5 artikuluan ezarritakoa kontutan izanda, ordenantza honetan araututako aprobetxamenduetan herri bidearen zolaketan edo instalazioetan kalteak gertatzen badira, lizentziaren titularrek edo ordainketea egin behar dabenean kalte horreek konpontzeko gastuak ordaindu behar izango ditue. Gastuok, edozelan be, eginiko aprobetxamenduengatik kitaturiko eskubideetatik aparte izango dira.

Tarifaren arabera eskatzekoak diran kopuruak eskatutako edo eginiko aprobetxamenduaren arabera kitatuko dira, eta epigrafeetan ezarritako alde naturalen arabera murriztu ahal izango dira.

Ordenantza honetan araututako aprobetxamenduen emakidan interesa daukienek lizentzia eskatu beharko dabe alde aurretik.

Aprobetxamenduaren iraupen zehatza finkatu ez bada okupazioa onetsita, okupazioa luzatu dala ulertuko da bajea aurkezten ez dan bitartean.

Bajea aurkezteak hurrengo urteko naturalaren lehen egunetik aurrera izango ditu ondorioak. Horren kontra alegatutako arrazoia edozein dala be, bajea ez aurkezteak tasea ordaintzen jarraitzea ekarriko dau.

7. Artikulua: HOBARIAK.

2013ko apirilaren 11ko sutean kaltetutako higiezinak zaharberritzeko, birgaitzeko edo eraikitzeko obrei lotutako herri jabariaren okupazioek % 100eko hobaria eukiko dabe.



Obra lizentzia eskariagaz batera eskatu ahal izango dabe hobaria, beti be, kaltetua izanaren ziurtagiria aurkeztuta